

HARROBIA IKASTOLAREN DEKLARAZIOA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Komunitate osoari:

Gizartean hazi omen da euskararen ezagutza maila, azken urteotako altuena omen da eta etorkizunari baikortasunez begiratu behar omen diogu. Beste alde batetik, lanbide heziketan ere, epe labur batean euskararen presentzia bermatzeko planak abian jarriko omen dira eta euskarak lan-munduan gizarte elebidun batek eskatzen dion presentzia izango omen du.

Alabaina, erronka argiak dauzka euskarak; esaterako, ezagutza mailatik erabiltzera dagoen aldea, euskal komunitatearen barruan euskara benetan zabaltzea, euskara komunikatzeko tresna arrunta izatea Bilbo eta bere inguruan, hainbat enpresatan eta sektoretan euskara balio erantsi bat izatea, euskarak okupatzea, horrenbestez, gizarte elebidun batean okupatu beharko lukeen espazioa.

Ilido horretan, Harrobia Ikastolak bere hondar alea jarri nahi du euskararen normalkuntzan, bokazio horrekin jaio ginen eta bide horretan jardun eta jardungo dugu. Zentzu horretan, Harrobiak bere konpromisoa erakutsi nahi du euskarak gizartean merezi duen espazioa berreskura dezan, lagunartean zein lan-tokietan normaltasunez mintzatua izan dadin; eskola-orduetan zein atsedendietan komunikazio-hizkuntza izan dadin; sare sozialetan, dela facebook, dela twitter, dela instagram hizkuntza gaztea eta bizia izan dadin; industria sortzaileetan, zerbitzu sektorean, adinak adin eta eremuak eremu, hizkuntza gizarte egituratzailea izan dadin

Fernando Garrigós Gabilondo
Harrobia - Zuzendaria